

Inaxio Begiristainen lana herritarrek oholztaratua





AURKIBIDEA

Iritzia Ane Urkola **3**

Elkarrizketa Julen Mercader
tatuatzeko makinen egilea **4-7**

Asteko Gaia Inaxio Begiristaini
omenaldia, oholtzatik **10-17**

Baso Ertzetik

Jon Ander Galarraga **18-19**

Iritzia Aritz Peñagarikano **20**

Iritzia Maddi Amiano **21**

Iritzia Koldo Aldabe **22**

Erreportajea Leidorren, emakume
borrokalarien dantza **26-29**



Azaleko irudia
Ibon Azpilikueta

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskaratu

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





**ANE URKOLA
AGIRREZABALA**
KAZETARIA

Hizkuntzaz haragoko ekosistemaz

Euskaraldiaren hirugarren edizioa iritsi berri den garaian, ailegatu zaizkigu euskararen inguruko albiste ezkorrak: datuek diote euskarak beherakada nabarmena izan duela udalerrri euskaldunetan. Ni herri euskaldun batean bizi naiz: hobe esanda, gehienok dakigu euskaraz (beste kontu bat da erabiltzen ote dugun), eta tarteka estres linguistikoa jasaten dugun arren, lekurik gehienetan euskaraz hitz egiteko aukera daukagu (medikuarekin izan ezik, dena esan behar bada).

Aste honetan Lorea Agirre izan dugu herrian feminismoaz eta euskalduntasunaz hizketan, eta biak nola elkarlotzen diren azaldu digu. Feminismoan askotan aipatu izan da berdintasun faltsuaren ideia hedatu dela jendartean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna (horrela deitzen diote hainbat instituzio zein herritarrek) erdietsita edukiko bagenu legez. Susmoa daukat antzera gertatzen dela euskalduntasunarekin: duela 60 urteko testuinguru errepresibo lazgarri horrekin alderatuta egoera hobe denik ezin uka, baina argi dago sareak zulo ugari dituela eta arrainek ihes egiteko arriskua dagoela.

Ez dago dudarik aurrerapausorik eman ez denik, baina egunero jasotzen ditugu alarma gorriak pizteko datuak: euskararen ezagutzaren beherakadan etena gertatu da, baina erabilerak etenik gabe jarraitzen du beherantz. Argi dago ez dela nahikoa hizkuntzaren transmisioarekin (eta hor ere herren gaude), eta hizkuntzarekin batera transmititu behar dela bere inguruko ekosistema guztia: kultur ekosistema, aisialdiarena, ikus-entzunezkoena... Izan ere, Iratxe Retolazak aipatu bezala, «kultur paisaiek eta kultur bizitzek

egunero zeharkatzen gaituzte, eta eragina dute hiztun komunitatearekiko geure atxikimenduan (edo atxikimendu ezan)». Euskalgintzan ari garenok, baina, askotan frustrazioz bizi dugu gure egitekoa eta lana: nola egin diezaiekegu aurre hain zokoratuta nahi gaituen sistemari eta munstro horri -sistemari- etengabe jaten ematen diotenei? Kontrakarrean ibiltzea ez da beti erraza izaten.

Euskaraldiak, beste behin, norbanakoen jarreretan jarri du fokua (eta hori ere egin behar da), baina Baionako finalaurrekoan Nerea Ibarzabalek hain distiratsu kantatu zuen legez, euskarak baliabide materialak behar ditu aurrera egiteko. Prestigioa irabazteko. Erabilera espazioak sortzeko eta handitzeko. Erreferenteak izateko. Euskaldunok nor izateko. Ez baitugu

«Duela 60 urteko testuinguru errepresibo lazgarri horrekin alderatuta egoera hobe denik ezin uka, baina argi dago sareak zulo ugari dituela eta arrainek ihes egiteko arriskua dagoela»

euskara altxorra izatea nahi, eskubidedun hizkuntza izatea baizik, bere buruaren jabe; euskaldunok horrela bilakatuko garelako gure hizkuntza-eskubideen jabe. Bestela, Irulegiko Eskua Nafarroako Gobernuaren bulegoren batean gelditu den moduan geldituko zaigu euskara. Altxor baten pare, bitrina baten barruan, baina geldirik eta isilik, eta denok dakigu erabiltzen ez den hizkuntzarekin zer gertatzen den.

«Niri arraroagoa egiten zait AEBetako batek baino Euskal Herriko norbaitek makina bat erostea»

JULEN MERCADER

TATUATZEKO MAKINEN EGILEA

Tatuajeak egiteko makinak egiten dituen bakarra da Euskal Herrian, baina bere bezero gehienak Ameriketako Estatu Batuetakoak dira. Ilusioa egiten dio inguruko norbaitek bere makina bat erosten dionean.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Julen Mercaderrek (Tolosa, 1988) tatuajeak egiteko makinak diseinatu eta saltzen ditu, MerkaMachines izeneko enpresaren bitartez. Tolosako Berazubi auzoko lokal batean du bere tailerra.

Makina batean pentsatzerakoan, zerbait handia irudikatu ohi da, baina tatuaje makinak ez dira handiak.

Ez, saiatzen naiz ahal den makina txikiena eta pisu gutxienarekin egiten, ahal den erosoena izateko erabiltzerakoan. Azken finean, eskuarekin tatuatzek da, eta marrazkiak egiteko, aipatutako ezaugarri horiek izatea komeni da. Nik egiten ditudan makinak oso txikiak dira, esku batean bost edo sei jar ditzakezu.

Eta nola deskribatuko zenuke?

Tatuaje makina batek orratz bat gora eta behera mugitzen du. Boligrafo itxurako hodi bat duzu, barruan orratza doa, eta gero hodi horren goran jartzen da nik egiten dudana makina, orratz hori gora eta behera mugitzen duena. Sekulako aukera dago, hasi

orratzek egin ditzaketen mugimendu ezberdinetatik, makina bakoitzak orratza mugitzeko dituen ezarpenetarako. Hor sekulako mundua dago.

Euskal Herrian horrelako makinak egiten dituen bakarra zara, ezta?

Nik dakidala, bakarra naiz. Lehen bazegoen Iruñean pertsona bat. Eta estatu mailan dozena bat izango dira makinak egiten dituztenak.

Zu zerbaitengatik bereizten zara?

Iruditzen zait tatuatzerako garaian dagoen gauzarik zailena marra lodi bat egitea dela. Marra fin bat edozein makinarekin egin daiteke, baina marra lodi bat egiteko makina indartsu bat behar duzu, eta horrekin

batera kolpe eta ibilbide ezarpen batzuk behar dituzu. Horrelako makina bat sortzea ez da hain erraza. Nik egiten ditudan makinak horregatik bereizten dira: orratz asko dituen multzo batekin marra indartsu batzuk egin ditzakezu, pasada batean, behin eta berriro pasa gabe. Ho-

«Egiten ditudan makinak oso txikiak dira, esku batean bost edo sei jar ditzakezu»



Julen Mercader, bere tailerrean tatuajeak egiteko makinekin lanean. **I.G.L.**

rrrez gain, marra finak egiteko makinak ere egiten ditut, itzalak eta puntutxoak uzten dituzten makinak ere bai... Denetatik.

Kanpotik itxura berdina izan arren, gero funtzio ezberdinak izan ditzakete.

Azkenean makina doitu dezakezu. Ospetsuena den eta gehien saltzen dudan makinak doitzeko modu pila bat ditu. Makina horrek marra potolo bat egiten dizu eta marra fin bat ere bai. Gero badaude bakarrik marra potoloak egiteko makinak eta beste batzuk marra finentzat.

Makina horien diseinua eta azken ukituak ematen dituzu, baina makina bera egiteko beste makina handiago batzuk behar dira, ezta?

Nik diseinua ordenagailuarekin egiten dut, zentro mekanizatu batera bidaltzen dut, eta gero beraiek la-

gin bat bidaltzen didate. Nik hori probatu egiten dut nire tailerrean, eta ikusten badut zerbait aldatu behar dela, esaten diet nola moldatu eta ondoren sorta bat egiten dut. Aparte motorrak eta torlojuak erosten ditut, eta gero nire tailerrean muntatzen ditut makinak.

Nolatan sartu zinen tatuatzeko makinaren mundu horretan?

Tatuajeak gustatzen zitzaizkidan, lagunak nituen tatuaje egileak zirenak, eta beti izan naiz abila eskuekin. Tatuaje egileak ziren lagunak esaten zidaten makinaren bat egiten saiatzeko. Nik aroztegi batean egiten nuen lana, eta tatuatzeko makina batzuk egin nituen egurrezko txasisarekin. Gero oso kuriosoak ziren makina batzuekin jarraitu nuen. Bizarra mozteko makina errusiar batzuk bazeuden elektrizitate gabe-koak, karraka batekin, soka emanda funtzionatzen

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

zutenak, eta bi minutuko autonomia zutenak. Horiek moldatu eta tatuatzeko makinatan bihurtu nituen. Hiru bat egin nituen, eta tatuatzeko zuten lagun batzuei eman nizkien. Hortik Instagram eta Facebooken hasi nintzen publikatzen egin nituen makinak, eta interesa piztu zuten.

Pixkanaka gehiago sakontzen joan zinen, beraz.

Bai, eta hor gertatu zen aldizkari batek elkarrizketa bat egin zidala egiten nituen makinen inguruan. Bideo bat publikatu zuten nire lanaren inguruan, eta hurrengo egunean Facebooken eta Instagramen ehunka pertsona nituen galdezka makinen inguruan. Hor salto bat eman nuen, eta aprobetxatu egin behar nuela pentsatu nuen. Errusiako makina horiek erosten hasi nintzen, gero horiek moldatu eta saltzen nituen Instagram bitartez. Ez dira egunero erabiltzeko makinak; batez ere kurioak direlako sortzen dute ikusmina. Horrekin tatuatu daiteke, baina urtean bost bat tatuaje egiteko; bitxikeri bezala edukitzeko erosten dituz jendeak. Hiru bat urte egon nintzen ia bakarrik makina mota horiek egiten, eta gaur egun jarraitzen dut ere horrelakoak egiten. Gerora hasi nintzen makina profesionalagoak egiten, egunero erabiltzen direnak.

Ordenagailuarekin diseinatzeko dituzu makinak. Zer ikasketak egin zenituen?

Nik arotzeria ikasi nuen eta denbora luzez aroztegi bateko kontrol numerikoan lana egiten egon nintzen.

Ordenagailuz diseinatzeko oinarritzko ikasketak ditut. Buruan dudak guztia askotan ezin dut pasa hiru dimentsiotara. Nik planoetan marrazten dut eta gero enpresa batera joaten naiz hiru dimentsiotako prototipoa egiteko eta hortik aurrera ikusten dut zer aldaketa egin.

Zenbat urte daramatzazu tatuatzeko makinak egiten?

2015ean hasi nintzen, beraz, zazpi urte daramatzat. Hiru-lau urte egon nintzen batez ere bizarra mozteko makina errusiarrek moldatzen, eta gero makina profesionalekin gehiago murgildu nintzen.

Hemen inguruan gutxi izanik ere tatuatzeko makinak egiten dituzuenak, batez ere Europa aldera eta Ameriketako Estatu Batuetara saltzen dituzu.

Nire salmenten %80 inguru Ameriketako Estatu Batuetara doa zuzenean. Beste %15a Europa aldera: Alemania, Frantzia, Italia... Faltza den beste zatia estatutailan saltzen dut. Ez dakit zergatik nire bezero gehienak Ameriketako Estatu Batuetakoak diren. Bertan askoz ere tatuaje egile gehiago egongo direnez, pentsatzen dut hori izango dela arrazoi bat. Niri arraroagoa egiten zait Ameriketako Estatu Batuetako batek baino Euskal Herriko norbaitek makina bat erostea. Bestalde, sekulako ilusioa egiten dit inguruko norbaitek makina bat erostea. Nire tailerrean norbait etortzen denean sekulako harrera egiten

ATARIAn jarrita Gojerri
eta Urrola Kostako
Hitza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

diot, eta oso gustura egoten naiz, makinaren erabilera eta ezarpenak zuzenean azaltzeko aukera izaten dudalako. Bestela posta elektronikoz azaltzen dut hori dena, eta Interneten baditut tutorialak azalduz nolakoak diren makinak, baina ez da gauza bera. Ingelesa asko ikasi dut, sare sozialetatik egunero ari baina hitz egiten. Itzultzailea ere maiz erabiltzen dut, baina, bai, asko ikasi dut.

Sare sozialak asko erabiltzen dituzu.

Hasi nintzenean Facebook erabiltzen nuen, baina orain oso gutxi. Instagram bitartez ematen naiz ezagutzera. Webgunea ere badut, eta bertatik saltzen dut, baina promozioa batez ere Instagrametik egiten dut.

Eta hor jarraitzaile ugari dituzu.

Baditut bai. Gaur egun 70.000 inguru izango dira. Leku askotakoak dira, baina gehienak Ameriketako Estatu Batuetakoak.

Etorkizunera begira, zer aukera gehiago daude mundu horretan?

Ni beti nabil saltsan. Makinaz aparte koadro batzuk egiten ditut, kartzeletan egiten ziren estiloko tatuaizeko makinak barruan sartuta. Tatuaizearekin zerikusia duten hainbat gauza egiten ditut, esaterako, makinen erakustokiak. Buruari eragiten nabil beti makina berriak diseinatzeko. Lanaldi erdiz lantegi batean egiten dut lan, eta ateratzen dudana denbora guztia nire enpresa propioa garatzeko erabiltzen saiatzen naiz.

Eta tatuaieak egiten dituzu?

Berez ez naiz horretan aritzen. Badut nire lokalean leku bat bereizia tatuaieak egiteko, nire makinak probatu ahal izateko. Ezagunei-eta egiten dizkiet tatuaie



batzuk, makinak probatzeko, eta lagun asko ditut tatuaieak egiten dituztenak, eta zenbait estudiotara joaten naiz tatuaieak egitera gonbidatzen nautenean. Tatuaieak egiten ditut, beraz, baina oso gutxitan, ez baitut denborarik horretarako. Tatuaie bat egitea ez da bakarrik marrazten ematen duzun denbora, aurretik prestatu egin behar dira gauzak, marrazkiaren diseinua egin behar da, lan asko dago marrazten hasi aurretik.

Nola ikusten duzu tatuaiearen mundua? Esan daiteke gero eta zabaldugoa dagoela?

Bai, orain jende askok du tatuaieren bat. Ez da orain urte batzuk bezala, tatuaieak zituztenak kasik seinatuta zeudela. Kartzeletako jendea-eta izaten zen, marjinatuak zirenak-edo, nolabait esateko. Gaur egun normalizatuta dago, eta horrela jarrai dezala.

Tolosaldean eta inguruan nolako da egoera?

Tolosan bi estudio daude tatuaieak egiteko. Donostian asko irekitzen ari dira, eta hamar edo gehiago izango dira. Bartzelonan eta Madrilan pila bat daude, eta jendea estilo jakin baten bila joaten da.

Bezeroen artean baduzu norbait oso ezaguna dena mundu horretan?

Baditut bezeroak oso ezagunak direnak. Italiar bat badago Guinness marka bat zuena, eta hark erosi zidan makina bat; museo bat du, eta oparitu nion makina bat bertan jartzeko.

Aurrera begira zer asmo duzu?


Makinak gehiago garatzea, gero eta pisu gutxiago izan dezaten, kostuak ere ahal den gutxiena izan, eta ahal den makina gehienak saltzea. Eta, noski, erosten duenak pozik egotea saltzen dudana makinarekin, bai prezio aldetik, baita funtzionamenduaren aldetik ere.



12 ETXEBIZITZA TASATU

BERASTEGI – Ategi II

175.476€-tik hasita



- 2 logela + 2 bainugela
- 62/79m² erabilgarri barruan
- Terraza mendira begira
- Garaje itxia barne
- A kalifikazio energetikoa



Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20150 BILLABONA



www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

AMASA-VILLABONAN

EUSKARAREN EGUNA **ABENDUAK 3**

14:00

BAZKARI HERRIKOIA

Berdura plazan

BARRIKOTEA 3€

(Irabaziak Euskaraldira bideratuko dira).

Bakoitzak bere bazkaria ekarri beharko du.

ONDORREN

Euskarazko kantuen

BINGOA

Kartoiak egunean bertan eskuragai.

Irabazlearentzat oparia egongo da.

18:30

ANDONI OLLOKIEGI

kontzertua Berdura plazan



Amasa-Villabonako
Batzardea



TEILATUAK

FATXADAK

ERABERRITZEAK

VELUX leiho eta pertsiana
guztiek baldintzak
betetzen dituzte.
1.000 eurotik aurrera, produktua,
instalazioa eta BEZa barne.



Diru
laguntzez
baliatu eta aurreztu

%40
VELUX leihoak
aldatzerakoan

Bazurka industrialdea, 40 · 20260 Alegia
943 651 359 · 661 633 695 · iareraikuntzak@gmail.com

VELUX®

Instalatzailer baimendua



HERRITARRAK AKTORE

Inaxio Begiristainen jaiotzaren 100. urteurrena dela eta, Alegian hamaika herritar elkartu dira 'Bata zu eta bestea ni' antzezlanaren eskaintzeko; gaur, bihar eta astelehenean antzeztuko dute zineman.

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Alegiako Intxurre elkartearen 50. urteurrenaren aitzakian sortu zen herrian antzerkia egitearen ideia. Elkar-tearen urteurrenak bat egin du Inaxio Begiristain Al-bisuren jaiotzaren 100. urteurrenarekin, eta omenal-dia egin nahian, Begiristainek idatzitako *Bata zu eta bestea ni* antzezlanaren taularatuko dute herritarrek, In-txurre antzerki taldea, Inaxio 100 urte izenpean. Ha-maika pertsona elkartu dira aktore lanak egiteko, eta zuzendari lanak May Gorostiaga tolosarrak egin ditu. Goitik begiratuta Elizpe zinema txiki ez zaiela geratu-ko kontatu dute aktoreek, baina herritarren artean

sortu duen ikusmina dela eta, emanaldi bat motz ge-ratuko zela eta, hiru egitea erabaki dute: bata gaur, bestea bihar eta hirugarrena astelehenean.

Herri mailan zabaldu zuten deialdia, antzerkia egin edota antzerkiaren bueltan elkartu nahi zuten herri-tarrak biltzeko helburuarekin. «Taldea nahiko azkar sortu zen», gogora ekarri du Imanol Irazustabarre-nak, eta gaineratu du: «Lehenagotik ere bazegoen zerbait mugituta eta pentsatuta, baina gero ezereze-an geratu zen».

«Duela pare bat urte jada aritu ginen antzerkian in-

teresatuta geundenok bilerak egiten edo elkartzen, baina hortik ez zen ezer atera. Hau aukera polita izan da berriz ere elkartzeko», dio Ane Arandiak.

Intxurre elkarteak kultura batzordera eraman zuen gaia. «Kultura batzordeak lehenik eta behin beste zerbait egitea pentsatu zuen herriko talde eragile ezberdinekin; Inaxioren omenez zerbait berezia egitea, baina bueltak eman, eta ez zen ezer ateratzen. Azken aukera izan zen antzezlanen bat egitea», azaldu du Felix Irazustabarrenak. Jakitun ziren bazirela gogoazuten herritarrak. «Erraz esan du Imanolek, baina pixka bat kosta zen arrankatzea», zehaztu du Felix Irazustabarrenak. Behin arrankatuta eta batzuk taldean sartuta, besteak erraz juntatu zirela adierazi dute.

Belaunaldi ezberdinen nahasketa

Hamaika herritar elkartu dira. Belaunaldi ezberdineko gizonak eta emakumeak: Felix Irazustabarrena, Lurdes Iraola, Alex Goikoetxea, Maider Zabala, Maialen Oiartzabal, Hodei Oiartzabal, Ane Arandia, Agur- ne Renobales, Iñaki Artola, Imanol Irazustabarrena, eta Endika Arnedo. Eta beste kide asko inguruan laguntzen izan dituztela nabarmendu dute.

Gehiengoa behin ere oholtza gainera igo gabea dela kontatu du Arandiak: «Interesa bai, eta zerbaitegatik gaude hemen, baina esperientzia gutxi».

Maialen Oiartzabalek azpimarra sorkuntzan jarri du: «Sorkuntza arloa gustuko dugu, eta batzuk bertsolariak gara, eta hortik gogo pixka bat sortu dugu, baina gazteon gehiengoa inoiz aritu gabeak gara».

Uda baino lehen hasi zen taldea elkartzen. Obra kokuatu zuten, eta baita beraiek ere, eta entsegu pare bat- edo egin zituzten. Behin uda pasata, irailean hartu zu- ten «serio» gaia. «Hasieran lasai geunden, denbora ze- goela eta entseguak ere lasaiago joaten ziren, eta gutxiago aurreratzen genuen», argitu du Arandiak. Hori bai, eguna gerturatzen joan den heinean, arduratsuago hartzen joan da taldea, eta «presioa» sentitu dute.

Bata zu eta bestea ni antzezlanak dena aurrean egiteko aukeratu dutena. Komedia da, eta grazioso- tzat dute: «Garai batean idatzia izan arren, nik uste dut

EMANALDIAK

ALEGIA

Abenduak 2, ostirala.

'Bata zu eta bestea ni' antzezlanak,
19:00etan, Elizpe zineman.
Sarrera: 5 euro.

Abenduak 3, larunbata.

11:00etan, Elizpe zineman.
Sarrera: 5 euro.

Abenduak 5, astelehena.

19:00etan, Elizpe zineman.
Sarrera: 5 euro.

badituela gaur egungo ukitu batzuk. Eta komedia den heinean, guk egiteko, uste dut komedia hobea dela dra- ma egitea baino», dio Irazustabarrenatan gazteenak. Formaturik onena aukeratu dutelakoan daude.

Belaunaldi ezberdinek egin dute bat, baina Oiartzabalen ustez: «Azken batean denok herritarrak gara, eta denok ezagutzen dugu elkar betidanik». Harreman ona dutela dio, eta nahiz eta belaunaldi ezberdinak izan: «Nahiko giro sana sortu dugu, eta ondo moldatzen gara».

«Polita da zuretzat laguna edota gertukoa den hori, beste paper batean ikustea», kontatu du irribar- rez Arandiak. «Oso ondo pasatzen dugu antzerkia egiten dugun bitartean».

«Taldea polita sortu dela uste dut, eta lehen bage- nuen harremana edo baginen ezagunak, baina orain nola joan diren harremanak ikusteak badu bere gra- zia», dio Imanol Irazustabarrenak.

«Denok elkar ezagutzen genuen, eta zenbait eki- menetan elkarrekin parte hartu ere bai, bertso mun- duan ez bada, beste zerbait antolatzen edo egiten; harremana beti egon da», esan du helduenak.

Hamaika lagun elkarteak badu bere lana, baina erraza suertatu zaiela esan dute. Nahikoa hasieratik finkatu zuten astelehenetan elkartzeko zirela. «Astele- henetan hasi ginen eta hortxe iraun du», azaldu du Arandiak. Normala den moduan, lanegatik, izan dira bi astez behin egon direnak, edota tarteka huts egin du- tenak edo beranduago iritsi direnak. «Nahikoa finkatu-



Antzezlanean ariko diren lau aktore: Maialen Oiarzabal, Felix Irazustabarrena, Ane Arandia eta Imanol Irazustabarrena. **E. MAIZ**

ta egon da hasieratik eta nahikoa ondo eraman dugu, kontuan izanda bat pilotaria, bestea... zailtasunak baziren baina ondo atera da», nabarmendu du Arandiak.

«Denok ditugu aparteko gauzak, eta egon dira gorabeherak, baina nahikoa entsegu onak egin ahal izan ditugu, batik bat azkenaldian», dio Irazustabarrena gazteak.

«Oso-oso ondo» pasatzen dutela baieztatu du Oiarzabalek, eta «entsegu bat ikusi besterik ez dago», dio. Beste guztiek ere horixe baieztatu dute: «Ondo pasatzen da barruan, eta kanpoan hobeto; erlaxatuta esertzen zarenean besteak ikustera».

la berrogei urte atzera egin ditu Felix Irazustabarrenak, eta bera da oholtza gainean aktore lanetan aritua dena. Maider Zabalak ere egina duela herri mailan antzerkiren bat argitu du. «Intxurre Antzerki Taldea sortu zenean bertan ibili nintzen, eta gero Donostiara joanda beste talde batean edo bestean ibilita nago, baina kasik berrogei urte utzita», azaldu du Felix Irazustabarrenak.

Orain berriz oholtzaratzeaz galdetuta: «Gogoia baren. Berriz hau egin beharra zegoela eta, baina barenkien zer gertatuko zen; neronek egin beharko nuela. Gogoia eta grina pizten zaizkizu, baina, era berean,



IBON AZPILIKUETA

kezka ea zein *marroitan* sartzen naizen». Baina kezka horiek alde batera utzi zituen «behin taldea osatuta ikusten duzunean, eta beste guztiak ere gogoarekin ikusten dituzunean; errazagoa da», dio.

Lehen aldiz oholtza gainera

Eguna gerturatu ahala presioa eta dudak sortzen joan zaizkie. «Nire aldetik bertso munduan-eta jende aurrean ibilita nago. Jende aurrean aritzeko hori badut, baina orain beste esparru batera goaz eta beldur txiki hori badut», esan du Imanol irazustabarrenak. Taldeari eman dio indarra: «Antzerki talde batean gauden heinean, taldean eginda beti errazagoa da edo niri behintzat babes hori edukitzeak asko laguntzen dit».

Entseguetan «oso espazio seguruan gaudela sentitzen dut», dio Arandiak, eta gaineratu du: «Gure artean konfiantza dugu eta jada badakigu obra nolakoa den eta oso erraz egiten dugu, baina jendearen aurrekoak bai ematen dit beldurra». Gainera, «ikusleak herritarrak izateak, kritikoagoak dira. Azpeitira joan eta ez naute ezagutzen, eta zerbait gaizki ateraz gero ere lasaiago gaude. Herriko kritikotasun horrek beldur pixka bat ematen du», aitortu du Arandiak.

Oiartzabalek, berriz, urduritasun puntua baduela kontatu du, eta bat egin du Arandiak aipaturiko herritarren kritikotasunak sortzen duen beldurrarekin, baina era berean, «nik gogoia daukat jada egiteko, publikoaren barreak entzuteko; izan ere, badakit oso ondo pasako dutela, eta horrek asko motibatzen nau». Gainera, bertsolaritzatik dakarkien entseguak edo esperientzia baliagarri zaizkiola esan du, eta urduritasuna kudeatzen laguntzen diola azpimarratu du.

Taldeaz galdetuta, gogotsu daudela aipatu dute, baina eguna gerturatu ahala tentsioak eta urduritasunak gorako bidea egin dutela.

Begiristainen ezagutza

Felix Irazustabarrenak zortea Inaxio Begiristain bera ezagutzeko. Ekintzaile moduan definitu du euskaltzalea. «Gauza pila bat mugitzen zituen, eta garai hartan, batez ere, euskarak mugitzen zuen».

Parte hartzaileak

Aktoreak:

Felix Irazutabarrena Arsuaga
Imanol Irazustabarrena Garmendia
Alex Goikoetxea Pagola
Lurdes Iraola Agirresarobe
Maider Zabala Balerdi
Maialen Oiarzabal Tolosa
Endika Arnedo Garcia
Ane Arandia Ansa
Iñaki Artola Izagirre
Agurne Renobales Tolosa

Zuzendaria:

May Gorostiaga Pozo

Argiak:

Arkaitz Balda Usandizaga

Dekorazioa eta argazkiak:

Ibon Azpilikueta Gonzalo

Bertsolariak:

Ainhoa Ontsaló Sagastume eta
Iker Navarro Martinez

Euskara mugitzeko horretan gauza asko egin zituela ekarri du gogora: «Itzulpen, poesia, bertso,... eta antzerkian topatu zuen bere sormena garatzeko modua».

Antzezlanak idazten hasi zen eta sari pila bat irabazi zituen, baina «bere indar guztiak jartzen zituen hori oholztan ikusteko, eta taldeak sortzen zituen», adierazi du Irazustabarrenak. «Juxtu gu gaztetxo ginenela Intxurre inguruan mugitzen ginen batzuekin elkartu zen, eta antzerki talde bat sortu zuen berak idazten zuen hori plazaratu ahal izateko».



80ko hamarkadan oholtzaratu zuten lehen aldiz. **ATARIA**

Garai hartan hiru antzezlan taularatzera iritsi ziren. «Bera horrek mugitzen zuen, eta batez ere hizkuntza eta hizkuntzaren barruko moldeari eta esamoldeari eta esanari indarrari ematen zion garrantzia handia antzerkian ere». «Hor pasatzen genituen ordu pila bat, eta gero eszenaratu egiten zen», ekarri du gogora.

Urte batzuetan Gipuzkoan zehar asko-asko ibili zirela kontatu du. «Gustura ibili ginen, eta Inaxio bera ere azkenera arte gustura ibili zela uste dut».

Justu obra bat preparatzen ari zen, eta banaketak eta egiten hasia zegoen bakoitzak zein paper egin

beharko zuen-eta. «Hil zenean oraindik antzerkia idazten ari zen, ez zuen bukatu antzezlan hori, eta ez genuen plazaratu noski», kontatu du.

Belaunaldi gazteek ez dute Begiristain ezagutu, baina badute bere berri, eta Imanol Irazustabarrenak azaldu du: «Ekintzailea zela eta ekintza diferente askotan sartuta zegoela, eta antzerki idazlea ez herrian bakarrik, Gipuzkoa mailan izan den onenetarikoa izan zela». Eta jarraitu du: «Horrekin hazi gara, eta herriko kultur etxeak ere haren izena darama. Egia esan, mundu horretan mugitu garenok beti izan dugu nahiko presente bera zein izan zen, zer egin zuen eta zer egin nahi izan zuen».

Iritsi da eguna, eta gaur, bihar eta astelehenean eskainiko dute herritarren aurrean, hilabeteetan ikasi eta praktikan jarri dutena. Aurrera begira ez dira jarri edo ez dute jarri nahi izan momentuz. «Taldea hau abendura begira sortu zen, gerora arra sortzen bazaigu bada, ikusiko dugu zertan jarraitzen dugun», dio Imanol Irazustabarrenak.

«Lehenik eta behin, zubi honetan zentratu behar dugu, eta nahikoa lan izan dugu. Gero ikusiko dira geroak», azpimarratu du Arandiak. Eta ildo beretik jarraitu du Oiartzabalek: «Aurrena hau ondo egitea izango da behintzat, eta gero jendeak esango du gustatu zaien edo ez».


Publikoaren erantzunaren zain daude guztiak, eta horrek baldintzatuko die aurrera begira zer egin ere kontatu dutenez.

Azken batean, *Bata zu eta bestea ni* herritarrek herritarren aurrean taularatzearen nahia eta helburua Inaxio Begiristaini omenaldia egitea izan da; hau da, «herriari bere altxor bat erakusteko modua», zehaztu du Felix Irazustabarrenak.

«Belaunaldi asko gaude bere antzezlan bat bertatik bertara ez dugunak ikusi», argitu dute gazteek. «Herriarentzat polita izango da, lehen era batera egingo zuten, eta orain beste era batera egingo dugu; aldaketak bai edo bai egongo dira, eta polita izango da publikoarentzat ere, batik bat, lehengoa ikusi zutenentzat», bukatu du Arandiak.



INAXIO BEGIRISTAINEN LANA EZAGUTARAZIZ



Inaxio Begiristain Albisu Altzon jaio zen 1922ko irailaren 14an, honela 100 urte bete dira aurren bere jaiotzatik. Alegian bizi izan zen, 1984. urteko ekainaren 13an hil zen arte. Hori horrela Alegiako herriak eta herritarrek ez du aukera galdu nahi izan, eta urtean zehar gogoan izan dute ekitaldi ezberdinak eginez.

Begiristain ezer bazen, euskaltzalea zen, eta ekin-tzailea. Lanari ez zion beldurrik izan eta lan asko egin

zuen herrigintzan. Herri mailan arlo askotako taldeak lagundu zituen: musika, txistua, dantza, ikastola, antzerkia...

Batez ere antzerkian nabarmendu zen Begiristain. Obra asko eta asko idatzi zituen, eta lan horretan harrrapatu zuen heriotzak berak. Bere lanen artean da, gaur-biharretan oholtzaratuko duten *Bata zu eta bestea ni* antzezlan. 1976an idatzi zuen.

Hiru ekitaldiko irri-antzerki bat da non zapatagile bat, eta bere morroiaren saltsak, istiluak eta zalapartak agertzen diren. Ondo pasatzeko endredoeko komedia bat. Intxurre Antzerki Taldeak 1980 inguruan taularatu zuen, eta hogeita hamar bat emanaldi egin zituzten. Eta 1983. urtean Azpeitiko euskal antzerki topaketetan lehen saria lortu zuten.

Horrez gain, Begiristain sari asko jasoa izan zen bere ibilbidean, eta idazteaz gain, itzulpen ugari ere egin zituen.

Sortzean bakarrik, ordea, ez zen geratu bere lana, eta antzerki taldeak sortzen lagundu zuen herri askotan. Esaterako, Tolosako Oargi edota Alegian bertan, Kimu-Berri eta Intxurre taldeak. Hori horrela, obra asko taularatzera ere iritsi ziren.

Txistu egile eta konpontzailea

Txistularientzako txistuak behar zirela eta, musika tresna horiek fabrikatzen ere hasi zen Begiristain, era autodidaktikoan. Alegiako herritar askok dute berak egindako txistua, eta konponketa lanak ere egiten zizkien.

Ondorengoek bere izena ikas dezaten eta herritarrek ahaztu ez dezaten, besteak beste, bere izena daruma Alegiako Kultur eta Kirol Etxeak. 100. urteurrena dela eta, kartel berezia jarria dute hormatik zintzilik.

«Nik kanpotik ikusten dudana inplikazioa da, eta asko eskertzen da»

MAY GOROSTIAGA POZO ZUZENDARIA

‘Bata zu eta bestea ni’ antzezlanaren zuzentzeko ardura hartu zuen May Gorostiaga tolosarrak; Alegiako taldea zuzentzea «opari bat» izan dela aitortu du.

Oso eskertua agertu da May Gorostiaga tolosarra Alegiako taldeak egindako gonbidapenarekin, eta baita taldearekin berarekin ere. «Askok ikasi dut nik ere beraiekin», aitortu du. Arazoei irtenbidea ematen ikasi du: «Urduri jarri gabe, eta energia polit batekin konpontzen dira arazoak».

Alegiatik gonbita jaso zenuen antzerki taldea zuzentzeko.

Lehenengo momentutik oso eskertua nago niregan jarri duten konfiantzagatik. Egia esan, eta nahiz eta gertu bizi, oso gutxi ezagutzen nuen Inaxio Begiristainen figura. Ondoan ditugu erreferente handiak eta ez ditugu ezagutzen. Lehenengo gauza egin nuena obra irakurtzea izan zen, eta informazio gehiagoren bila aritu nintzen. Artista puska bat aurkitu dut. Antzerkigintza, itzulpenak, musika, txistuak,... CAFen lan egin eta aparte zer figura zen Inaxioren.

Nolako taldearekin egin duzu topo?

Honelako talde batekin topo egin tea ederra da. Energia askorekin etortzen dira, eta astelehenero-astelehenero etxeko lanak eginda. Jantziak begiratuta, atrezzoarena, Whatsapp taldean beti mugimendua dago eta energia oso polita da, eta asko erraztu didate lana.

Zein izan da zure lana?

Nik kanpotik botatzen dut begira-

da, eta forma ematen joan naiz; batez ere, antzerkigintzako gauza teknikoekin. Beste guztia beraiek daukate.

Esperientzia aberasgarria izan da?

Bai. Oso aberasgarria. Esperientzia pila bat izan dut horrelako sorkuntza prozesuetan, antzerki amateurrean zuzentzen, baina kasu honetan enkarguzko lan bat izan denez, beste bat sentitzen naiz. Normalean zuzendaria da taldeaz tira egin behar duena, eta kasu honetan alderantzizkoa da. Beraiek etortzen dira izugarritzko energiarekin, beraiek bakarrik egiten dute lan. Zuzendari bezala opari bat da.

Askok lehen aldiz ari dira aktore lanetan.

Ez nuke esango. Badakit teknika gutxi dutela batzuk, baina erraza izan da. Eta oholtzara igotzen direnean denek ahalegin handia egiten dute. Testuak ikasita etorri dira, eta hori askotan, hainbesteko diziplina, ez da ikusten profesionalekin. Askotan eskatu egin be-

har diezu testua hurrengo asteko ikasteko, edo kaña eman behar diezu aktore profesionalei. Hauek profesionaltasun horren ordez izugarritzko energia dute. Guztiek dute beraien lana eta ordu libre-tan prestatzen dute hau. Nik kanpotik ikusten dudana inplikazioa da, eta asko eskertzen da.

Aktore onak daude?

«Polita da zenbat pertsona inplikatu diren taldeaz aparte, eta hori oso polita da herria egiteko»



Bai, bai. Batzuk badaude lasai aski ibiliko liratekeenak beste obretan.

Baina zerk eman dizu lan gehiena edo zer izan da zailena?

Zailena askotan erabakiak hartzea izan da. Nahi eta nahiez, obra hau bere garaian idatzi zen, eta nola eguneratu errespetu handiarekin; hau da, jatorrizko

testuarekin eta jatorrizko ideiarekin, baina kontuan hartuta, teknologia aldatu dela, eszenak aldatu direla... Nola egin obra koral bat gaur egun, baina hango izpiritua mantentzen. Eta nola ez, omenaldi bat egin Inaxiori ere. Ez gara asko urrundu behar bere lanetik. Horiek izan dira niretzat zailtasun handienak. Nola izan fidela jatorrizko testuarekin, baina aldi berean zer aportatu diezaiokegun, egun, hori aberasteko.

Eszenografia guztia ere prestatu behar izan duzue.

Bai. Ez naiz sentitzen bakarrik aktore zuzendaria, baizik eta zuzendari artistikoa ere banaiz. Panelekin ideiak botatzea gustatzen zait gero erabakiak denen artean hartzeko, eta hasiera batean agian nire marrazkiek ez zituzten ulertzen, niri pieza bati bi erabile-
ra ematea gustatzen zait. Azkenean elkarrekin denok hizkuntza bera erabiltzea lortu genuen, eta jada dena bideratuta dugu. Gero, atrezzo asko benetako zapata denda bati esker lortu dituzte, eta polita izan da. Nire eskuetatik ihes egin du, eta polita da zenbat pertsona inplikatu diren taldeaz aparte, eta hori oso polita da herria egiteko. Omenaldian ikusi zen, eta atzetik bada atmosfera bat arduratzen dena gu laguntzeko edo gure bidea errazteko.

Dagoeneko prest oholtzaratzeko?

Prozesua produktua baino gehiago baloratzen dut. Prozesua hain polita izan da, ni jada oso pozik nagoela. Guztiek pila bat eman dute. Nola hasi ginen eta nola iritsi garen, eta nola bukatuko dugun. Prozesu guzti hau inork ez digu kenduko. Gurea da, eta hori da Inaxiok behar duen omenaldia. Entseguak egitea astero-astero eta lan egitea. Pentsatzen dut bere garaian ere berdina egingo zutela. Intxurre Antzerki Taldeak antzeko zerbait egingo zuen, hau da, lagun batzuk elkartu, eta lan eta lan aurrera eramango zuten proiektua. Alde horretatik pozik, baina behin bukatuta, proiektua ezagutarazi nahi duzu, eta batez ere herrikoei eta ezagunei. Urduritasun puntua bada, eta presioa ere bai. Hori ona da, ondo egin nahi duzulako.



Argirik gabe ere bizitza

Bizitza gogorra dela, eta natura gu hiltzeko dagoela ez da inongo sekretua. Behin baino gehiagotan «ama lurra», «ama naturak emango dizu» eta «guztioak lurraren seme-alabak gara» esaldiak entzun behar izaten ditudan arren, arruntena, bizidun bat infekzio, harra-
pari edo gosete batekin, bi urte baino lehen hiltzea da. Gure ama lurra maiteak bere seme-alabak deuseztatzeko interes handia duela ematen du, bizitza gogorra da eta natura gu hiltzeko dago.

Baina bizitza; fruitu, zuhaitz, belar eta erreka bezetako baso argitsu eta zoragarri batean gogorra bada, nolako bizitza mota izango da ez landare, ez argi eta ez janaririk gabeko eremu batean? Gezurra badirudi ere, eremu hauek ugariak dira gure Tolosalde maite honetan, eta inork aurkakoa pentsatu arren, bizitzaz beterik daude. Eremu hauek kobazuloak dira eta gaurkoan bertan bizi diren animalia arraroez ariko gara.

Oinarrizko Heziketa Orokorra egin genuen ikasleoi, *Kux Kux* izeneko natura, gizarte eta denerako balio zuen testu-liburuan esan zitzaigun argirik gabe ezinezkoa dela bizitza. Nolatan daude orduan kobazuloak bizidun bezetara? Nondik datoz beraien elikagaiak? Ez badute ezer ikusten, nola ehizatzen dute? Nola ugaltu, goizeko lauretan taberna bat baino ilunagoa den kobazulo batean? Guztioak baitakigu taberna batean goizeko lauetatik aurrera, ugaltzeko aukerak eta ugalkidearen kalitatea gutxitu egiten direla...

Kobazuloetan bizi diren bizidunak hitz egiten dugunean, ez gara ari neguan lozorroa egitera joan den hartaz edo goiz pasan dagoen saguzarraz. Tarteka

kobazuloetara sartzen diren koba kanpoko bisitari hauek, egia esan ez dute meritu askorik, ez dute beren bizitza osoa koba barruan egiten. Baina badira animalia batzuk, kobazuloan jaio, bizitza guztia eman, ugaltu eta hil egiten direnak: argirik gabe, janari oso gutxiarekin, hezetasunarekin eta hotzarekin... Eta hala ere, belaunaldietan zehar kobetara bizitzera egokitu dira eta kobetatik kanpora aterako bagenu segituan hilko lirateke.

Baina nola demontre bizi eta ugaltu daiteke animalia bat, batere argirik gabe eta ia janari gabeko eremu gogor hauetan?

Lehenik eta behin, zer demontre jaten dute? Gezurra badirudi ere, kobazuloa ez da sistema erabat isolatua, gure Tolosaldeko lurpea esponja modukoa da, kareharria nagusi eta ur sarrera-irteerak nonahi daude. Ur hauetan bizidun mikroskopikoak egon ohi dira, ur hauek amak prestatzen digun arrain-zopa bezalakoak dira, edateko eta jateko *estropezuak* dituenak. Horrez gain, jada koba bertan hildako animalia haundi-ertainak ere topa daitezke, agian gau zoro bat izan eta erabat galduta kobaren ataria topatu ezin izan duen azkonar baten gorpua egon daiteke, beraz zer jan, gutxi den arren, badago. Arrazoi honengatik, kobetako bizidun guztiek amankomunean dutena, energia aurrezteko kapazitate handia da, jaten den oro ongi erabili behar da.

Kobetan bizi direnak oso astiro mugitzen dira. Astiro mugitzen denak alferrikako mugimendu gutxiago egiten ditu, eta alferrikako energiarik ez du galtzen. Esan genezake, kobazuloetako bizitza kanpoan baino geldoagoa dela, arrazoi honengatik, dirudienez, kobazuloko bizidunen batzuek beste bizitza, kanpoan



bizi direnena baino luzeagoa da, gutxiago mugitzen dira, kezka gutxiago dituzte eta luzeago bizi dira. Beraz, luze bizi nahi baduzu, gutxi jan, zalaparta gutxiago egin eta ez kezkatu.

Adibide moduan, koba barrura erabat egokitua dagoen uhandre mota bat bada Europa ekialdean, zein, 70 urtera arte bizi dena. Gurean dugun uhandre arrunta, normalean asko jota, 20 urte bizi daiteke, beraz kobetako uhandre honen kasuan, gutxi jateak eta lasai bizitzeak hiru aldiz luzatzen dio bizitza.

Kobetako animalien beste ezaugarri bat begirik ez izatea da. Zertarako behar dut begia bezalako egitura konplexu bat sortu eta mantendu, argirik ez dagoen eremu batean bizi banaiz? Argi gutxi dagoen eremuetan, animalien joera begi handi eta sentikorrak garatzea da, baina koba baten sakonean argirik ez dago, beraz, pikutara begia! Eta nola demontre ohar-tzen dira animalia hauek inguruan dagoen janariaz, harrapariez eta bestelako arriskuez?

Kobetako animaliek begirik ez duten arren, bestelako informazio mota jasotzera oso ondo egokitu dira, batez ere soinua eta informazio kimikoa. Ez da harritzekoa beraz, animalia hauek azal oso sentikorra, belarri finak, bibrazio-

Kobetako animaliek begirik ez duten arren, bestelako informazio mota jasotzera oso ondo egokitu dira

ak nabaritzeko hanka oso luze finak eta inguruko airean dabiltzan konposatu kimikoak atzemateko berebiziko antena luzeak garatzea.

Eta zein kolore izango du ilunpe gorritan bizi den animalia baten azalak? Normalean azaleko kolorea kamuflatzeko, bikotekidea bilatzeko edo harrapariak uxatzeko erabiltzen da, baina ilunpe gorritan koloreak ez direnez ikusten, animalia hauek zuriak edo gar-denak izan ohi dira. Zertarako gastatu behar dut nire energiaren zati bat pigmentuak sortzen, inguruan ilunpe gorria eta begirik gabeko bizilagunak baditut?

Azken ezaugarria, benetan xarmagarria da: kobazuloetako bizidunek kumeak zaintzen dituzte eta benetako arreta eskaintzen diete txikiei. Gure etxeko sabaian agertzen den armiarma batek, ehunka arrautza jartzen ditu etxeko zokoren batean zetazko poltsa handi batean bilduta, hau egin ostean ospa egiten du, ez du interesik beren kumeen zaintzarekiko. Arrautza haietatik ehunka armiarमतxo jaioko dira eta hauetatik erdiak hiltzen diren arren, gurasoei ez die kezka handiegirik sortuko. Baina kobazuloetan topatu diren armiarma espezie askok, arrautza bakarra jartzen dute eta berari berebiziko maitasun eta zaintzak ematen dizkiote, kumetxo gutxi batzuk soilik errunez. Noski, kumetxo hauei gero ez diete esnea edo purea emango, kumetxo hau jaiotzen eta badoa... Gizakietan gertatzen den antzera, ia ia.

Baina eremu berezietara egokituak egoteak arazo bat dauka, eremu honetan aldaketa txiki bat egoten bada, akabo. Eta gezurra badirudi ere, gure kobak

etengabe pairatzen ari dira kanpotik datozen giza jarduerak, kobak zaborrez betetzen ditugu, natur eremuetan isuriak botatzen ditugu eta ur hauek kobetatik igarotzen dira. Lur azalean egiten den oro, kobazuloetan eragiten du. Beraz, zaindu gainazala, barrenak paira ez dezan.

ARITZIA

Euskizofrenia II



**ARITZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA**
EUSKARA IRAKASLEA

Azkeneko *Aritzia* artikuluan, *Euskizofreniari*

buruz hitz egin nuen; finean, Euskal Herriko nahasmen politiko, ekonomiko eta gainerakoak hartzen

dituen eritasun kronikoaz. *Euskizofreniaren* koadro kliniko ohikoenetakoa da bi errealtate paralelotan bizitzea; alegia, hitzez gauza bat esatea, eta ekintzez aurkakako egitea.

Euskaraldiak horrelako agerraldi ugari ekarri dizkigu egunotan. Xabier Usabiagak honako hitzekin hasi zuen azaroaren 18ko albistegia: «Euskara indartu, normalizatu eta hedatuko baldin bada, hamabost eguneko esfortzua baino asko ere handiago beharko du, baina itxaropena da hamabost eguneko ekimen hau horren guztiaren abiapuntu izatea». Iruditzen zait ezin hobeto laburbiltzen duela Euskaraldiaren egitekoa. «Egunotan, segur aski, euskararen errealtatea benetan dena baino goxoagoa izango da», jarraitu zuen aurkezleak. Ez zaik arrazoirik falta, Xabier. Esango nuke eztei-bidaiaren antzekoak izan direla egun hauek, eta orain, tamalez, betiko egunerokotasunak *déjà vu*-ra itzularaziko gaituela.

Gaur Egun albistegiak hamalau minututik gora eskaini zizkion Euskaraldiari azaroaren 18an, saioak berrogei minutu inguru irauten duela aintzat hartuta. Aitzitik, gaztelaniaz elkarrizketatutako ehunka erantzun entzuten jarraituko dugu. Edota, pilotari eta botilero euskaldunak Murtziakoak bezala hitz egiten. Zer dela eta jartzen diote mikrofonoa gaztelaniaz ari

den botileroari? Etxe berean, euskararen alde daudela dioten bitartean, gaztelania ari da normalizatzen.

Orain aste batzuk, Gaztealdiaren inguruko hitzaldi batean izan nintzen, eta bertan hizkuntza gatazka azaleratzearen garrantziaz jardun zuen hizlariak. Bestalde, hausnarketa sakona eta burutsua egin zuen *euskalwashing*-az; hau da, euren burua zuritzeko eta promozionatzeko Euskaraldia (edo Korrika) erabiltzeaz. Izan ere, mila ekimen eta ideien alde gaude, baina askotan alde gauden bitartean egonean gaude, geldi. Eta hori edo aurka egotearen aldean, ez dago alde handirik. Xabier Usabiagaren hitzei gehituko nieke norbanakoaren ahaleginaz gain, borondate eta botere politikoa, mediatikoa eta herri boterea behar direla egoera iraultzeko. Askotan, gehiegitan datorkit burura Bi Balaren abestiak dioena: «Zu gabe ezin inora joan, zurekin ezin ibili». Edo alderantziz litzateke aproposagoa? Zurekin ezin inora joan, zu gabe ezin ibili.

Aristotelesek esan omen zuen norberak ez dakiela zer dakien harik eta beste bati irakatsi diezaiokeen arte. Ni ez naiz Aristoteles, akaso, *Aritztoteles*, baina euskaraz hitz totelez egiten duenak ere izan behar du eta luke *iraultzaldiaren* partaide. Izan bedi *déjà vu*-aren galbide.

«Esango nuke eztei-bidaiaren antzekoak izan direla egun hauek, eta orain, tamalez, betiko egunerokotasunak ‘déjà vu’-ra itzularaziko gaituela»

Zilbor-hestea



MADDI AMIANO
ALLUE
IRAKASLEA

Mende lauren pasatxo dauzkadan honetan kezkatzen nau ni ere horrelakoa bilakatuko ote naizen pentsatzeak. Esperientziatik hitz egiten dutenek, denerako daukate azken hitza. Lana nola egin beharko zenu-

keen, zenbat denbora beharko duzun lan hori ulertu eta ongi egiten. Besteen pareko bilakatzen... eta etapako bakoitzean nola sentituko zaren esaten.

Hara, kafea kontrako eztarritik sartzen zait horrelakoetan. Eta hori, ez zela nigana zuzentzen ari hizketan ari zitzaien eta adina bikoizten dion gizona pa-

Ez da kasualitatea hamarkada berri bat hastera goazenok amatasunarekiko dugun kezka. Gizon hark zioen aurkara, ez zaigu ezer ahazten, agian lehenengoz ari gara emakumeak nahi duguna eta nahi ez dugunaren artean erabakitzen. Ama izan ahal dugun, nahi dugun, eta momentu egokian gauden ala ezezko ezbaia sortzen... planteatzen, dudan jartzen, baieztatzen, ezeztatzen, erabakitzen, bizi-tzen.

Baina, inork iritzia galdetu gabe emandako diskurtsoa arriskutsuegia da garai hauetan. Eta badirudi, ama izatea, aita izatearen parekoa dela oraindik batzuentzat.

Tira, egin dezala emakume bakoitzak nahi eta sentitzen duena, lehenesten duena, momentu

«Baina, inork iritzia galdetu gabe emandako diskurtsoa arriskutsuegia da garai hauetan. Eta badirudi, ama izatea, aita izatearen parekoa dela oraindik batzuentzat»

txadaz kafea hartzen zuen emakumeari: lehen, ugalkortasuna omen garrantzitsuena. Gaur egun berriz, lan arloan postu egoki bat izateak lehentasuna daukala dio, baina gazte batzuei ahortzi egiten zaigula amatasunerako momentu ona joaten ari zaigula. Pluralean badaezpada, to hordagoa.

horretan behar duena. Ondoren haurrarentzat askotan besoak soberan egoten baitira, amarentzat faltan dauden bitartean.

Bakar batzuk betaurrekoak atzekoz aurrera jantzita dabilta, beste batzuk goizeroko esnaldia jaitza berri bat sentitzen dugun bitartean.

Hezkuntza eztabaida



KOLDO ALDABE
KAZETARIA

Hezkuntza euskalduna. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ziurtatuko duena; murgiltzea izango duena eredu bakar. Euskal Curriculumean oinarrituko dena. Euskal Herria bere osotasunean landuko duena,

eta Euskal Herriko ikastetxeen artean elkar-ezagutza eta lankidetzat bultzatuko dituen. Ikaslea ardatz hartuta, hezkuntza berrikuntzan arreta jarritz, pedagogia eredu aurreratua, ebidentzia zientifikoan oinarritua, pertsonaren garapen integralean zentratua... bultzatuko duena. Hezkuntza laikoa, doktrinamendurik gabekoa. Hezkidetzan oinarritua, inklusiboa, eta, noski, unibertsala eta doakoa. Bazterketari eta segregazioari aurre egingo diena.

Horixe eskatzen diot nik, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako lantzen ari diren Hezkuntza Lege berriari. Oinarri horiek ezarri eta kunplitzea. Eta uste dut, oker ez banago behintzat, oinarri horietako askorekin, guztiekin ez bada, bat egiten dutela azken urte luze honetan elkarrekin muturtuta dabiltzan eskola publikoaren aldekoek eta ikastola-zaleek. Eztabaida honetatik, gutxi asko, kristau eskolak kanpo geratu dira, haiek izan arren aipatu ditudan oinarri horietako askotik urrunen daudenak.

Publikoa/privatua dikotomian dago eztabaidaren muina. Publikoa zer den eta nola ulertzen den. Hala, publikoa administrazioaren titularitatea duena dela diotenak daude alde batean, eta ikuspegi komunitariorik, administrazioaren titularitatetik haragoko publikotasuna defendatzen dutenak, bestean. Lehenbiziko ikuspegitik, eskola publikoak soilik lirateke publi-

ko; bigarrenengo ikuspegitik, aldiz, ikastolak ere publiko lirateke, herritik (herritarrek) sortu eta herriarentzat (herritarrentzat) diharduten hezkuntza kooperatibak, irabazi asmorik gabekoak, gobernantza demokratikoa dutenak baitira. Publiko izateko ikastolak publikatu egin beharko liratekeela diote lehenbizikoek; ikastolak ere sartuko liratekeen publikoaren definizio berri bat eskatzen dute bigarrenengoek. Badira, noski, eztabaida gehiago: segregazioari buruzkoa, naziotasunari buruzkoa, ikastetxeen autonomia errealarari buruzkoa, udalen parte-hartzeari buruzkoa...

Eztabaida sutsuak ez dira amaitu. Ordea, azken asteetan bestelakorik ere izan da. Eta gero eta gehiago dira gainera, lubakietatik atera, liskarrak alboratu eta herri gisara pentsatuz elkarrekin ekiteko unea dela aldarrikatzen ari direnak. Nork berea defendatzea zilegi den arren, askoz aberasgarriago eta onuragarriagoa delako elkarrekin guztion onura bilatzea. Ezberdinen artean zerbait berria sortzea, alegia. Hezkuntza sistemak eztabaida zabala bezain sakona behar baitu, baina erabaki sendoak ere bai, hezkuntza baita herri baten -are gehiago gurea bezalako herri baten-ezinbesteko oinarrietako bat.

«Oinarri horietako askorekin, guztiekin ez bada, bat egiten dute azken urte luze honetan elkarrekin muturtuta dabiltzan eskola publikoaren aldekoek eta ikastola-zaleek»

AGENDA

OSTIRALA

ABENDUAK 2

ABALTZISKETA

ABENDU KULTURALA

15:00. Euskal kantuen bingoa.

17:00. Haurrentzat
ipuin kantatuak,
Goibegin.

ADUNA

EUSKAREN EGUNA ETA

SANTA ZEZILIA

14:30. Pista-jolasa, plazan.

15:45. Merienda.

16:30. Loatzo musika eskolako
ikasleak, udaletxe azpian.

ALBIZTUR

EUSKARAREN EGUNA

14:30. Bingo musikatua.

Ondoren. Txokolate beroa.

A25

17:30-20:30. Autodefentsa
feminista tailerra.

12 urtetik gorako emakumeei
zuzendurik, udaletxeko
bigarren solairuan.

ALEGIA

ANTZERKIA

19:00. *Bata zu eta bestea ni*
antzezlan, zinean.

**Irakurri erreportajea*
10-17 orrietan.

ALKIZA

EUSKARAREN EGUNA

16:45. Haur festa, Fagusen.

19:00. *Esnatu naiz* kabareta,
Erretore etxean.

Ondoren. Solasaldia
Eiherarekin.

AMASA-VILLABONA

TXAPELKETA

19:00. Eskuz binaka elite mailan.
X. Antton Pebet. Final-laurdenak.
Udal pilotalekuan.



AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

18:00. *Gure lurrari begira,*
etorkizuna amets solasaldia
Josebe Blanco artzaina eta
EKHOlektiboako kide den Aitziber
Sarobe biologoaren eskutik. Saroi
Jauregik gidatuko du, kultur
etxeko areto nagusian.
Buruntzunzin mendi elkarteak
antolatuta.

BERASTEGI

EUSKARAREN EGUNA

Bazkalandoan. Eskolan
euskararekin lotutako tailerrak.

15:40. *Esazu hitz bat* kantua.

18:30. Euskarazko kantuen
bingoa, Urepelen.

19:30. Pintxopotea.

BERROBI

BINGOA

18:00. Bingo musikatua Erroizpen.

Ondoren. Barrikotea.

GAZTELU

EUSKARALDIA

21:00. Euskaraldiaren amaiera
afaria, Ostatuan.

IKAZTEGIETA

EUSKARAREN EGUNA

09:00-11:00. Talo tailerra. Taloak
egin eta jan.

11:00-12:30. Talo jatea
herritarrentzat, familientzat. Euro
bat taloa.

12:00-12:30. Ikasleek emanaldia.

14:30-15:30. Bingo musikatua.

15:30-16:00. Txokolate jatea.

IRURA

TAILERRA

18:00. Opari kontziente, hezigarri
eta ez sexisten inguruko tailerra,
Sualma proiektuaren eskutik. Gela
borobilean.

LIZARTZA

EUSKARAREN EGUNA

19:00. Bertso-poteoa. Haritz
Mujika eta Oihana Iguaran, herriko
ostatuan.

Ondoren. Bingoa.

TOLOSA

IKASTAROA

09:00. *Musika aplikazioak zure*
smartphonean ikastaroa, 2 orduz,
gaztelaniaz. KZ Gunean.

IPUIN KONTAKETA

18:00. Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa. 3 urtetik gorako haurrei zuzendurik. Haur liburutegiko ekintza gelan.

GAZTE TOPAGUNEA

Euskararen Eguna. Galdera txapelketa, taldeka.

EUSKARAREN EGUNA

19:00. Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, *Mikrotik...*

bakarrizketa umoretsua, Nerea Arriolarekin.

Sarrera doan. Kultur etxean.

IKUSKIZUNA

20:00. Eva Guerreroren *LOF: Ladies on fight*, Leidorren.

**Irakurri erreportajea*

26-29 orrietan.

KONTZERTUA

23:30. Brea taldearen kontzertua, Frontonen.

ZIZURKIL

URTEURRENA

Elikadura Sarearen III. Urteurrena.

18:00. Desazkundearen beharra erakusketaren irekiera,

Plazaetxeberriko Topagunean.

19:00. *Ekologista naiz baina...*

Gorka Egiaren hitzaldi-tailerra, Plazaetxeberriko Topagunean.

LARUNBATA

ABENDUAK 3

ABALTZISKETA

HIRUGARREN ADINEKOEN EGUNA.

13:00. Meza Larraizko elizan.

Ondoren. Bazkaria Ñañarrin.

ALEGIA

ANTZERKIA

11:00. *Bata zu eta bestea ni* antzezlan, zinean.

URTEURRENA

12:00. Gaztetxearen 35.

urteurrena. Euskararen Eguna. Trikitixa, takolina, sagardoa eta pintxoak.

ALTZO

EUSKARAREN EGUNA

12:00. Euskararen inguruko solasaldia, Batzarremuñon.

AMASA-VILLABONA

EUSKARAREN EGUNA

14:00. Bazkari herrikoia, Berdura plazan. Barrikotea 3 euro.

Irabaziak Euskaraldira bideratuko dira. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du.

Ondoren. Euskarazko kantuen bingoa. Kartoiak egunean bertan eskuragai. Irabazlearentzat oparia egongo da.

18:30. Andoni Ollokiegiren kontzertua, Berdura plazan.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

11:00. Hiru eta Erdiko pilota txapelketako finalak. Eguraldi ona bada frontoi zaharrean, txarrarekin Altuna Anaiak frontoian.

Ondoren. Poteoa Ergonen trikiti soinuaz alaiturik.

14:00. Bazkaria Altuna Anaiak frontoian. Tiketak herriko tabernatan salduko dira.

Ondoren. Euskal Kantuen Bingoa.

17:00. Mus Txapelketa Altuna Anaiak frontoian.

ANOETA

EUSKARAREN EGUNA

16:30. Haur jolasak. Ikastolako euskara elkarteko kideek antolatuta.

Segidan. *Segi dezagun Anoeta euskalduntzen!* manifestua.

Ondoren. *Otsoko eta Pituxa...* *Euskaldun perfektuaren bila* ikuskizuna. Itziar Saenz de Ojer eta Nagore Esnaola Uitziren eskutik.

ASTEASU

EUSKARAREN EGUNA

12:00. Ekitaldia, bertsolariak eta herriko musikariak.

12:30. Herriko trikitilarien kalejira.

14:00. Bazkaria Aiztondon.

Jarraian. Bingo musikatua.

18:00. Txotxongiloak, udaletxeko ikus-entzunezko gelan.

BALIARRAIN

UDAZKEN KULTURALA

18:00. Hikadromoa. Mahaietan, hika tertulian.

BERROBI

TXAPELKETA

15:30. Berrobiko XXX. Ion Ander Izagirre frontenis txapelketa. Finala.

IBARRA

BABARRUN FESTA HERRIKOIA

10:00-13:00. Ibarrako XI. babarrun lehiaketa herrikoia aterpean.

13:30. Sari banaketa.

14:30. Babarrun jatea.

16:45. Euskal kantuen bingoa.

18:15. Kantu bira herrian zehar.

Ondoren. Afari-merienda Xeplan.

IRURA

EUSKARAREN EGUNA

14:30. Bertso babarrun bazkaria Ane Labaka eta Haritz Mujika, Gazte Alaiak elkartean.

LIZARTZA

KULTURALDIA

17:00. *Mikra* ikuskizuna. Berdinki konpainia, frontoian.

TOLOSA

EUSKARAREN EGUNA

12:00. Galtzaundi euskara taldeak antolatuta. Euskarazko kantuen bingo musikatua. Kartoiak egunean bertan egongo dira eskuragai. Trianguloan.

TXAPELKETA

15:30. XXII. Paco Sanchez saria, Usabal kiroldegian.

16:30. 22. Skate Txapelketa, Bonberenean.

TXOTXONGILOAK

18:30. *Chinchulina y el ruiseñor de la China* ikuskizuna, La Canica taldearen eskutik. Familiarra, 4 urtetik aurrera. Topic-en.

IKUSKIZUNA

18:00. *Ama Lurra*. Biziaren jatorrirako bidaia zirraragarria antzerki eta txotxongilo ikuskizuna. Princep Totilau talde katalana, euskaraz. Gure Zirkuan.

AZOKA

16:30-19:30. *Bizi Tolosa* bigarren eskuko azoka. Berdura plazan.

UGARTE

GAZTAINA JATEA

20:30. Gaztaina jatea Ugarteko Amuarrairain elkartean.

ZIZURKIL

EGUBERRIETAKO AZOKA

BEREZIA

10:00-14:00. Bailarako artisauak eta janari postuak. Eguberrietako opariak erosteko aukera bikaina.

13:00-14:00. Euskararen Eguna dela ospatzeko, euskal musika zuzenean Olaia Toralen eskutik. Joxe Arregi plazan.

URTEURRENA

Elikadura Sarearen III. Urteurrena.

10:00. Herritarren jakintza eskuetatik eskuetara. Paper tintaketa tailerra, Plazaetxeberriko Topagunean.

18:00. Topagunearen inaugurazioa.

IGANDEA
ABENDUAK 4

ALEGIA

IRTEERA

09:00. Alegiako mendi asanbladaren irteera Amezketara. Pernando amezketarraren ibilbidea egingo dute, Pello Zabala Gunea bisitatuko dute eta ondoren talo jatea egingo dute.

ANOETA

ANTZERKIA

18:00. *A ze pare!* antzezlan. Mireia Garaiburu, Xabi Barriola eta Irati Saizar. Gaztetxean.

BERROBI

KULTURALDIA

12:00. Horma irudiaren inaugurazioa.

BIDANIA-GOITZ

EUSKARAREN EGUNA

12:00. Kantu jira herrian zehar. Eskolako jolastokitik abiatua.

LIZARTZA

KULTURALDIA

18:00. *Bonba bat naiz* antzezlan. Bea Larrañaga (Intujai teatro). Zimiterioan.

TOLOSA

IKUSKIZUNA

12:00. *Ama Lurra*. Biziaren jatorrirako bidaia zirraragarria antzerki eta txotxongilo ikuskizuna.

Princep Totilau talde katalana, euskaraz. Gure Zirkuan.

TXAPELKETA

16:30. IX. Ogi Berri torneo. Migel Soroaren oroimenez. Finalerdiak. Beotibarren.

ASTELEHENA
ABENDUAK 5

ABALTZISKETA

ABENDU KULTURALA

19:30. Amaia Zubiriarekin tertulia, bere bizipenak kontatuz, Goibegin.

ALEGIA

ANTZERKIA


19:00. *Bata zu eta bestea ni* antzezlan, zinean.

ZINEMA



CERDITA

Larunbata (19:00) eta astlehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



BLACK ADAM

Larunbata (21:30);
igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



HOPER

OILASKOERBIA
Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



LA MATERNAL

Larunbata (19:30 eta 22:00);
igandea eta astlehena (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



NIRE ZIRKUA

Larunbata eta igandea (17:00).
Amasa-Villabona, Gurea.

LOF RING BATEAN DANTZAN



Dantza ikuskizun tragikomiko bat ikusteko aukera izango da, gaur, 20:00etan, Tolosako Leidor aretoan: 'LOF Ladies on Fight'. Borroka librean arituko dira lau emakume eta zeremonia maistra bat izango dute gidari; bakarrak irabaziko du lehia, dantza eta umore artean.

Irati Saizar Artola

Ring bat, lau emakume borrokalari eta zeremonia maistra bat. Bi biren aurka, borroka librean, baina bakarrak irabaz dezake. Horixe da *LOF Ladies on Fight* dantza ikuskizunaren abiapuntua. Gaur izango da dantzaren bidez borroka librea ikusteko aukera, 20:00etan, Tolosako Leidor aretoan.

LOF Ladies on Fight Eva Guerrerok zuzendutako dantza ikuskizun tragikomikoa da, Doos kolektiboak sortu duena. Batez ere dantza ikusi ahalko dela aurrreratu du zuzendariak, baina borroka libreak ere

bere presentzia izango du, «dena umore ukitu batekin, kolore askorekin». Ikuskizunak 70. hamarkadako garaietara eramango du ikusle bat baino gehiago, musikak eta estetikak horretarako bide emango dutelako.

Lau borrokalari izango dira oholtzan, ring barruan. «*Pressing catch* ikusten genuenean bezala, lau pertsonaia sortu ditugu, eta dantzari bakoitzak pertsonaia bat ordezkatzeko du». Garazi Lopez de Armentia, Leire Otamendi, Helena Wilhelmsson eta Estibaliz Vi-

«Arte martzialek dantza garaikidearekin gauza mordoak elkarbanatzen dute»

Ila dira pertsonaietan sartuko diren dantzariak. Behin ringera igo-ta, orde, batetik La Pantera de Otxarkoaga ikusi ahalko da, «au-zoa irudikatzen duen pertsonaia

da, estilo gaurkotua duena, nolabait esateko, *txoni* bat». Bere bikotea Dancing Queen izango da, «pista-ko erregina eta egungo txapelduna, irabazteko fabo-rito dena, urre kolorez jantziko dena». Bikote horrek batetik Lady Borroka izango du aurkari, «gure labela dena, 0 kilometrokoa», eta aldamenen izango du Sobacova, «atleta errusiar tipikoa, Errusia perfektutik datorrena». Ringeaz beraz, faboritua dena, baldarra dena, perfektua dena eta guztia gaizki ateratzen zaiona elkartuko dira. Hori guztia Madame zeremo-nia maistraren begiradapean. «Ez du tuntunetik ezer eta genio txarra du; borrokalari bat du faborito eta beste borrokalari bat ez zaio batere gustatzen, eder-ki nabarituko zaio hori», kontatu du Guerrerok.

Bakarrak irabaziko du eta horretan datza ikuskizu-nak. Obrak aurrera egiten duen heinean, aitzakia hori erabiliko dute prekarietatea, lehiakortasuna, emaku-mearen sexualizazioa edota artearen merkaturatzea bezalako gaiak azaleratu eta nabarmentzeko. «Antzez-lanak aurrera egin ahala, obra honek dituen geruze-tara jaisten joango da ikuslea, miseria handia dagoela ikusiko dute, hain koloretsua, hain ikusgarria eta itxu-raz jai girokoa den eremu horren atzean».

Ikuskizunak oinarrian dantza izango badu ere, tes-tu pixka bat ere badu, «egoera batzuk kontatzeko edo pertsonaiaren bat ulertzeko» balioko duena. Eta nola ez, umoreak bere lekua izango du ikuskizunean zehar; «paper garrantzitsua» izango du, baina «en-gainu baten modukoa» izango da, «gezur txiki bat bezalakoa». «Guztia kolorez apainduta egongo da, baina benetan pose bat bezalakoa izango da, erreala ez dena, horixe baita askotan saldu nahi digutena, beraz, hortik hitz egin nahi dugu guk ere», dio zuzen-dariak. Aitortu du, orde, askotan, gauzak errazago

barneratzen direla barre eginez jasotzen badira: «Barre egiten duzu, eta bi segundo pasa ostean pentsatzen duzu: 'Ai ene, zeri egin diot barre', eta zer pentsatua

ematen dizu». Esan du, badagoela jendea obraren azalean geratzen dena, baina jendeak sakontzea ere lortzen duela, eta «kolorez margotzen dugun horre-tatik harago dauden gauzak» ikusiko dituela horrela.

Musikaren garrantzia

Obra honetarako apropos konposatutako abestiak entzun daitezke ikuskizunean zehar. Nerea Alberdik eta David S. Damianek sortu dituzte doinuak. «Musi-kak zentzua ematen dio saioari, duen erritmoagatik bereziki». 70. hamarkadako musikan inspiratuta mu-sikatu dute ikuskizuna, Guerrerok azaldu duenez.

LOF Ladies on Fight

Zuzendaritza eta testua

Eva Guerrero

Antzezleak

Garazi Lopez de Armentia

Leire Otamendi

Helena Wilhelmsson

Estibaliz Villa

Maria Urcelai

Koreografiak

Sorkuntza kolektiboa

Argiztapena

Arantza Heredia

Jantziak eta arte zuzendaritza

Azegiñe Urigoitia

Musika

Nerea Alberdi



«Erreferentzia oso argiak pasa dizkiet, Raffaella Carrà edota Gloria Gaynor bezalako artistenak, nahiz eta gero badiren eszena batzuk japoniar danbor edota perkusioa gehiago nabarmentzen direnak, baina atmosfera beraren barruan».

Dantzara gonbidatzen duen musika dela dio, «pertsonaiei asko laguntzen die doinuak, esaterako, borrokalari bakoitzaren aurkezpenean musika jakin bat izango du».

Musikak berarekin darama erritmoa, eta ikuskizuna ere erritmo «bizikoa» dela aitortu du. «Hasieratik pentsatuta zegoen, erritmo azkarra du, oso aktiboa



da, eta momentu jakin batzuetan ekintza bat baino gehiago gertatzen dira momentu berean, eta horrela, alde batera begira bazaude beste aldekoa galtzen ariko zara, baina nahita sortu nahi izan ditugu egoera horiek, eromen pixka bat sortzeko».

Erritmo horrek dantzarietara ere bere lana eskatzen die, baina esan du dantzako beste ikuskizunetarako bezala entrenatu direla oraingorako ere. «Gorputzarekin egiten dugu lan, eta betidanik landu izan dugu elkar altxatzea, bikotekako manipulazioak..., hizkuntza berdinen bultza dantzatu ahal izateko prestatu dira dantzariak».

Borroka, dantza bidez

Borroka libreak ariko dira protagonistak ring barruan, baina dantza eginez, dantzariak direlako, besteak beste. Guerrerok uste du borroka libreak eta dantzak badutela lotura. «Urte asko daramatzat taixia praktikatzen, eta karatea ere egin izan dut. Beti esaten diet arte martzialek dantzarekin zerikusi handia dutela, aldatzen dena intentzioa dela».





«Borroka libreak dantzatik asko du, gorpuzarekin lan handia egiten da bietan, lurrean mugimenduak egiten dira, zutik ere lantzen da. Asmoa ezberdina da bi diziplinetan: dantzan ez da bestea eraisten, ez da irabazte kontua. Baina nire ustez, arte martzial zaharrenak, puruenak, dantza garaikidearekin gauza mor-doa elkarbanatzen du, bai maila teknikoan, bai gorpuzaren erabileran, eta baita zentroaren ulermenean ere».

Doos kolektiboak, *LOF Ladies on Fight* ikuskizunaren aurretik, *Gorpuztu* ikuskizuna taularatu zuen. «Erabat ezberdinak dira bi lanak, gaua eta eguna dira», dio Guerrerok. Azken proiektu hau bere karre-ra profesionalean egin duen lanik desberdinena dela esan du, «bai ulertzeko moduan, baita sortzeko moduan ere, eta zer esanik ez emaitzan». *Gorpuztu*-ren kasuan, «su motelean egositako lana» izan zela kontatu du, ikerketa prozesu batetik jaiotakoa. Ildo horretan jarraitu nahi zuen zuzendariak hurrengo proiektuekin ere, baina *Gorpuztu*-ri arnas pixka bat eman nahi zion, «bere kabuz hegan egin zezan».



Horregatik erabaki zuen erregistroz guztiz aldatzen zen proiektu batekin hastea: «*Gorpuztu* egiten ari nintzela, Netflixen ikusgai dagoen *Glow* telesaila hasi nintzen ikusten; txikitan *Pressing catch* ere ikusten nuen, eta gauza bera zen, baina emakumeak izanda protagonista. Ikusten ari nintzen bitartean pentsatu nuen dantzara eraman nahi nuela, oholtzan egin nahi nuela hori». Hala ere, argi du hurrengo proiektuetan *Gorpuztu*-ren bidetik jarraitu nahi duela. Oraingoz, Tolosako gaurko hitzordua da *LOF Ladies on Fight* ikuskizunarekin 2022ko biran egingo duten azkena.





IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA.

Giro polita.

Goizean hodei

batzuk agertuko dira zeruan, baina ostarteekin tartekatuko dira eta giro atsegina izango da.

Arratsaldeko lehen orduetan zerua ia erabat urdin agertuko da eta giro ederra izango dugu. Azken orduetan hodeiak ugarituko dira, baina ez dute inolako ondoriorik ekarriko. Haizea aldakor ibiliko da, tarteka ipar ukitu batekin. Temperatura antzeko mantenduko da, 9-10 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Giro kaxkarra. Goizetik hodeiak nagusituko dira eta euri kontuak ere izango dira. Goizean goiz nahiko ateri egongo da, baina goiz erditik hasi eta azken orduak arte, zaparrada txiki batzuk izango dira. Azken orduetan atertzera egingo du. Haizeak ipar, ipar-ekialdetik joko du eta temperatura jaitsi egingo da, nekez gaintutuko direlarik 7-8 graduak. Elur-maila 800 metro inguruan kokatuko da.

IGANDEA

Giro atsegina. Goizean hodei batzuk izanagatik, ostarteak gailenduko dira eta giro argia izango da. Arratsaldean zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi ederra izango dugu. Hego-mendebaldeko haizea nagusituko da eta horrekin tenperaturak gora egingo du, 10-11 graduan joko duelarik goia, egunaren erdiko orduetan.

ASTELEHENA

Giro lasaia. Goizean zeruan urdina nagusituko da eta giro polita izango da. Arratsaldean zehar hodeiak ugaritzen joango dira.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

ABENDUAK 2, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34.
943 69 11 30.

ABENDUAK 4, IGANDEA

IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



Mikel ALTZARIAK

Usabal Industrialdea, Iruña Etorbidea, 22G
20400 TOLOSA - Gipuzkoa T./Faxa: 943 67 55 36

www.mikelaltzariak.com • mikelaltzariak@gmail.com

'50 urte zuekin'



saridunak

Atarikideentzat **2 sarrera bikoitz** ditugu

- Leire Gastesi (Tolosa)
- Mikel Agirretxe (Berrobi)



Abenduak 3, larunbata • 17:00 • Bilboko Bizkaia frontoian

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

- 66 Taberna (Tolosa)

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Movistar Estudiantes



Abenduak 7, asteazkena • 19:30ean
Donostiako Angelas Aguinaga Arenan

Saria eskuratzeko Ataria jarriko da zuekin harremanetan

Gabon hauetan...

ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm



Informazio gehiago: ataria@ataria.eus • 943 65 56 95

2. Mo 99€

**erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak**

**San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA**

www.multiópticas.com   

multiópticas
kalitatea - konfiantza - diseinua